


Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko urtarrilaren 10a

*



Arantzatik gazte asko joaten zen urtero Frantziara lan egitera.

F. I.

Arantza, mendi-mutilen herri

■ Arantza mendi-mutilen herria dela inork ez du zalantzan jartzen. Hamarkada askotan zehar, mendia eta kontrabandoa izan dira bertako gazteek —beste hainbat herritakoek bezala— aurrean izan dituzten aukera bakarrak. Diru beharrak bultzatu ditu arantzarrak mendialderantz, Frantziako basoetarantz. Martxoan joan, eta Gabonetan itzuli. Be-

deratzi hilabete zail eta gogor etxetik kanpo, etxetik urruti. Mendi-mutil izandako Pantaleon Errandonea eta Felix Iparagirrerekin mintzatu gara hango esperientziaz, baita oraindik mendi-mutil den Santiago Iturriarekin ere. Esteban Irigoien Arantzako apeza izandakoak, berriz, mutilei Frantzian egindako bisitak gogoratu ditu gurekin. ■

Mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Komunerako espezialak izaten ziren. Lo kuxka egin baino lehenago irakurtzeko ere aski egokiak. Koloreak, kolore biziko fotografiak eta testu gutxi. Bihotzarekin lotu izan dituzte, arrosa kolorea aipatzen dute batzuk, horia bestek. Lehen sinpleagoak eta gogorrak izaten ziren juzkuak: esamesa, aldizkaria horiek esamesa eta maiseaketa hutsa ziren, eta kitto.

Berdin da. Azken batean, distantzia kontua baita dena. Mota horretako aldizkariak, norbaiti egitekotan, munduan eta haren aferetan leporaino murgildurik dabilen soldadu akituari edota gertakari oso urrunetik behatzen dienari egiten diote mesede.

Hala ere, niri behintzat, gero eta zalagoa egiten zait horrelakoak irakurtzea. Esan liteke ez ditudala ulertzen; kasu honetan, gozatu nahi bada, oso inportantea izaten baita aurpegiak identifikatzea, eta ezin ibili ni ibiltzen naizen

bezala alboan dudanari galdezka hau nor da eta zergatik hain ezagun. Bestea nazkatzen duzu eta zeu ere ez zara libertitzen.

Kalean ere hasi zait antzeko zerbait gertatzen. Oraindik orain Madrilen egon naiz eta kezkatu itzuli naiz, hango kaleetan jende askori entzundakoak ulertzen ez nituela eta.

Bai, azkenean ohartzen zara ez dela jada konplizeen arteko kontua, hizkuntza unibertsalaren gakoan jabe direnen lasaitasunez ari zaizkizula eta zu *out* zaudela.

Hiri honetara ere ailegatu da sukarra, eta galdetzeari ekin behar izan diot. Alferrik ari naizela iruditzen zait. Ezinbestekoa bihurtu da Mississippi batel propialean zeharkatzea, izan ere, txisteak ere ezin dizkidate kontatu, tipoa ezagutu gabe ez omen nituzke ulertuko. Eta horrek *out*-etik *knock out*-era eramant zaitzake denbora gutxian.

Aukera egin beharko berandu baino lehen: telebista piztu eta itzali, *in* edo *out*. Besteek kontatutakoak ez du hainbeste graziarik izaten, eta batzuk lotsatu egiten direla ematen du.

Alabaina, teleikusle zintzoa bihurtuta ere, zaila izanen da beste hutsune hori betetzea. Hor egonen da beti komuna, eta zerbait eraman nahi nuke. Eta pelikula batean esaten zuten bezala «ni irakurzalea nintzen eta oroitzenak dauzkat». Monaco, Marbella, Côte d'Azur... Aristokrazia horizontaletik haratago bizi zen, hilik, paperezko hilku-txetan ehortzirik, eta komuneko kateari eragin eta nahi bazenuen betiko desgertzen ziren.

Zer eraman daiteke egun komunera? Periodikuak? Oso ongi nahasten ditu pozoin guztiak, baina gutxi irauteaz gain mundu hurbilaren bozeramailearen itxura dauka, eta larrialdietan zer?. Larrialdietan latzagoa. X

Esklusiba

GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Zangoza: De Dos en Blues Bandek kontzertua eskainiko du gaur, hilak 10, gaueko 23.30etatik aitzina, Landa tabernan. Kontzertua musu-truk gozatzeko parada izanen da.

Zubiri: Elurte taldeak kontzertua eskainiko du bihar, hilak 11, goizaldeko 01.00etatik aitzina, Gau Txori aretoan.

ERAKUSKETAK

Tutera: Usainei buruzko erakusketa zabalduko dute heldu den asteazkenean Castel Ruiz kultur aretoan. Erakusketa otsailaren bata arte izanen da zabalik. Aretoa irekita izaten da asteleheneetik larunbatera, arratsaldeko 18.00etatik gaueko 21.00etara.

Burlata: Gardenaren (Nafarroako artisten elkarte) marrazkiak ikusgai izanen dira hilaren 21a arte herriko Kultur Etxean. Aretoa asteleheneetik ostiralera 19.30etatik 21.30etara izaten da zabalik, larunbatetan 18.00etatik 20.00etara, eta jaiegunetan 12.00etatik 14.00etara.

Iruñea: Txirotasunaren inguruko *Pobres de nosotros* argazki erakusketa ikusgai izanen da Iruñeko Planetariumean hilaren 17ra arte.

Iruñea: Andy Warholen lanak hilaren 26ra arte ikusgai izanen dira Iruñeko Udalak Zapaferia kalean duen kultur aretoan.

Tafalla: Jose Ansoainen margoak hilaren 19ra arte izanen dira ikusgai Velaz galerian (Iruñea etorbidea, 15).

IKASTAROAK

Iruñea: Urtarrilerako ikastaro andana antolatu du GITE elkarteak: Emakumeen historia, kiromasajea, musika klasikoa, Latinoamerika... Informazio gehiago jasotzeko deitu 22 59 91 telefonora, edota zuzenean jaso GITEren egoitzan (San Miguel, 8).

Iruñea: Jendeaurrean mintzatzen ikasteko ikastaroa antolatu du Andreak urteko lehendabiziko hiruhilabeterako. Informazio gehiago jasotzeko deitu 13 33 10 telefonora edota zuzenean eskuratu Andreaken Txantrea auzoko egoitzan (Marcos Goñi z/g).

Iruñea: Iruñeko Alde Zaharreko Auzo Elkarteak ikastaro eskaintza zabala prestatu du urte berriko lehendabiziko hiruhilabeterako: eskulanak, yoga, txalaparta, dantzak, argazkigintza, *aerobic*-a, eskultura... Izena emateko, asteleheneetik ostiralera 11.30etatik 13.30etara eta 18.00etatik 21.00etara elkarrearen egoitzan (Aldapa, 5). Informazio gehiago jasotzeko deitu 21 25 26 telefonora. Ikastaroak urtarrileko hirugarren astean hasiko dira.

nafar kronika

Fermin Erbiti

Eta politikoak mutu gelditu ziren

Azken bi asteotako egunkariak irakurri eta gero, beldur naiz kazetariak ez ote duten jasaten bahitutakoek preso dutenen aurrean sentitzen omen duen Estokolmo sindromea. Izan ere, ofizio gogor honetan aritu diren guztiek badakite zein neketsua den egunero-egunero politikoen deialdietara joan eta, egunero-egunero, gauza berberak entzun, dakitenari buruz eta ez dakitenari buruz, eta, gainera, iritzi horiek benetako berriak balira bezala argitaratu behar izatea. Bada, urtean bitan politikoei hartu ohi duten atsedendia eskertu eta mina sendatzeko aprobetxatu beharrean, kazetariak eguneroa dute amesten. Eta albisterik ezean, sufrimenduaren arduradunekin biltzen dira futbolearen aritzeko...

Anaitasun eta anaitasun giroan jokaturiko norgehiagoka amaiturik hasi zen kalbarioa hurrengo egunerako albisterik ez zutelako. Partidu bera albiste garrantzitsu bihurtuta, arazoa egun batez atzeratzea lortu zuten, baina, harrez geroztik, larri ibili dira lehen orrialdeko albisteak aurkitzeko: elurra mara-mara ari du European (abenduan ez da hain harrigarria), loterian nafarro saririk ez (hori ere urterokoa), Olentzero etorri zaigu, baita Erregeak ere, *El niño*-ren loterian ere nafarro ez dugu deus irabazi (sariren bat lortzeak eskatuko luke ohikoak merezi ez duen tokia). Udan helatuei buruzko erreportaia ergela edo Sanferminak bukatuta *Iruñea hutsik* titulupeko artikulua argitaratzen diren bezala, kazetari batzuk neguan mendiak txuritzea edo loterian deus ez irabaztea albiste direla sinestarazi nahi digute egunero mintzatzen direnak mutu gelditu direlako.

Estutasun horretatik askatzeko zer egin

ez zekitela heldu zen Gabonetako albiste nagusia: Indurainen agurra. Eta ni, hamabi urteotan lorturiko markak sekulakoak direla jakinagatik, atarrabiarrak errekorrik zailena erretiratu ondoko egunetan lortu zuelakoan nago. Izan ere, bere bizitzan antolatutako lehen eta azken prentsaurrekoaren ondoren Indurain *Abc* eta *Egin*, nazionalista espainiar eta abertzaleak, PPkoak eta sozialistak... den-denak batzeko gai izan zen. Hori da, hori, berdindu ezineko marka!

Kirol albistea izan arren, komunikabide guztiek bat egin zuten egun hartan berri nagusia horixe zela erabakitzean. Egia da, noski, batzuentzat espainiar txirrindulari zena bertzeentzat euskalerritar edo nafar txirrindularia zela. Baina horrelakoetan ere komunikabide guztiek bat egin izana gehiegi zitekeen.

Gabonetako albiste nagusiaren protagonista hitz gutxikoa eta zozo samarra izateaz gain, ahaleginak egin ditu komunikabideetan ahalik eta gutxien agertzeko, berarentzat hori eraman beharreko zama astuna zuelako. Zergatik, orduan, Indurainzaletasun hain handia komunikabideetan, eta oro har, gizartean?

Horri erantzuten saiatzean kazetarien aurka futbolearen aritu zirenak etorri zaizkit burura. Ba al da horien artean garaiz erretiratzeko gai denik, Tourra bezalako garaipen politikoa irabaz lezakeela jakinda etxera joanen litzatekeena? Ba al da horien artean dakienari buruz bakarrik hitz egiten duenik? Ba al da horien artean ni-ren orde gu noizbait erabiltzen duenik? Ba al da lehiakideekin Indurainek erakutsi duen errespetuaren berri duenik, eta taldearekiko leialtasuna Indurainek bezala frogatuko lukeenik? Zurea erantzuna, irakurle.



asteko pertsonaiak



Gabriel Urralburu
Nafarroako lehendakari ohia

■ Gabriel Urralburu Nafarroako Gobernuako lehendakari ohia Entzutegi Nazionalean agertu zen herenegun Paul Perraudinek deklaratzera deitu zuelako. Urralburuk ez zien Suitzako epailearen galderei erantzun, Iruñeko epaitegian diru komisioen auzian inputatuta dagoenez deklaratzera berarentzat kaltegarri izan zitekeela arrazoituz. Jorge Esparzak, Luis Roldanen testaferra izandakoak, eta Antonio Aragon Herrilanteko sailburu ohiak ere uko egin zioten Perraudinen aurrean deklaratzeari. Epaile suizarrak Genevako kontu korronteei buruzko agiri ugari ekarri zituen. Horieta kontuetako diru mugimendu guztiak agertzen dira. Iruñeko epaitegian Perraudinen paperean esperoan daude. Urralburu eta Aragonen sumarioaren instrukzioa amaitzeko.



Txomin Nagore
Osasunako jokalaria

■ Osasunako erdilariak bikain jokatu zuen joan den asteazkenean, Sa-darren, Rayo Vallecanoren aurkako Kopako partiduan. Zalantzarik gabe, Gaztelu plazako taldekoen artean hobereña izan zen. Zelai erdiko ardatz nagusia izan zen, pase bikainak egin zizkien aurrelariel, eta gol bat sartu zuen. Dena dela, gorritxoek oro har oso joko ona egin zuten. Antza denez, Osasunako jokariak gusturago aritzen dira Lehen Mailako aurkariaren kontra. Bigarren Mailakoen aurka baino. Gogoratuko denez, Kopako aurreko kanporaketan Reala kanporatu zuten. Madrildarren aurka gauza bera lortzea, haatik, nekeza izanen da; izan ere, Osasunak joko ona egin bazuen ere, 3-2 besterik ez zuen irabazi, eta, beraz, Madrilen berdinketa lortzea kasik ezinbestekoa izanen zaio.

ahaztu gabe!



ETBK MEZAK IRUÑETIK

Iruñea: Euskal Telebistako lehen kateak igandero, goizeko 10:30etan, meza santua pantailaritzen du. Euskal Herriko herrialde guztietako Elizak hartzen dute, txandaka, meza horiek antolatzeako ardura. Hilabete honetan Nafarroako Eliza arduratuko da zeregin horretaz. Gauzak horrela, hilaren 12an, 19an eta 26an ETBK eskainiko dituen mezak Nafarroan grabatuak izanen dira, hain zuzen ere Iruñeko San Frantzisko Asiskoaren elizan grabatuak. Mezak ez dira zuzenean emanen: bezperan, larunbatetan, grabatuko dira, arratsaldeko 18:30etan. Iruñeko Artzapezpikutzak Iruñerriko euskaldun fededun guztiei grabazio horietan zein horien antolakuntzan parte hartzeko deia luzatu die. Lehendabiziko mezan Asisko San Frantzisko abesbatza ariko da kantari, bigarrenean Ipar Doinua abesbatza, eta hirugarrenean San Fermin ikastolako abesbatza. Lehenbiziko aldia da hau ETBKo eukaristiak Iruñean grabatzen direna. Dena dela, duela bost urte Barañandik egin zuten mezen emanaldia.

adi!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero asteleheneetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

Irafi Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haurrentzako saioa 12.30etan.

Zizur Nagusia

‘¡Sabina!’ estreinatuko dute gaur


AZ Kultur Zerbitzuak taldeak itzuli eta produzitu du Chris Dolanen antzerki lana

Zizur Nagusiko Kultur Etxean ¡Sabina! estreinatuko du gaur AZ Kultur Zerbitzuak taldeak, gaueko hamarretatik aurrera. Chris Dolan eskoziarrak idatzi du obra eta Ana Zabalegik itzuli. Ignacio Aranazen zuzendaritzapean, Jose Maria Asin, Ana Goia eta Marta Juanizek osatzen dute gaur taula gainean egonen den aktore taldea. Bihar ere, arratsaldeko zortzietan, antzezpena ikusteko aukera izanen da.

Erredakzioa / Iruñea

ZIZUR NAGUSIKO Kultur Etxea ¡Sabina! komediaren estreinaldiaren lekuko izanen da gaur, gaueko hamarretatik aurrera. Chris Dolan eskoziarrak idatzitako obra, AZ Kultur Zerbitzuak taldeak itzuli eta ekoiztu du. Aktoreei dagokienez, eskenatik gizon eta emakumeak aurki daitezke, hala nola Jose Maria Asin, Ana Goia eta Marta Juaniz. Zuzendaria, berriz, Ignacio Aranaz izan da. Pedro Salaberria arduratu da eszenografiaraz, eta Javier Asin zuzeneko musikaz.

¡Sabina! obraren proiektua orain dela urtebete jaio zen. Ana Zabalegi AZ Kultur Zerbitzuak taldeko arduradunak azaldu duenez, Edinburgoko Jaialdian ezagutu zuten laz Chris Dolanen obra eta autore eskubideak erosi zitzioten. Ana Zabalegik berak itzuli du obra egilearekin batera. «Kritikaren eta ikusleen saria



Jose Maria Asin da gaur estreinatuko den obrako aktoreetako bat.
JOXE LACALLE

irabazi zuen obra honek jaialdi hartan, eta guri ere obra berri eta dibertigarria iruditu zitzaigun. Gehiago pentsatu gabe, proiektu honi ekitea erabaki genuen», azaldu du itzultzaileak.

Gaiari dagokionez, hiru pertsona helduren istorioa kontatzen du Dolanen lanak. «Euren bizitzako une larri batean daude, adina dela eta. Bakoitza den moduan agertzen da eta bizitzari buruz bakoitzak duen iritzia eta

ikuspuntua azaltzen da», azaldu du Zabalegik.

Istoria pisu batean garatzen da: bere herritik alde egin duen emakume txekiar batek, asperuta bizi den emakume batek eta gaztaroko ametsak behin eta berriro gogoratzen dituen gizon batek egiten dute topo. Europako ekialdean gertatutako aldaketak dira obraren hondoa edo funtsa. Testua, baina, komedia moduan dago idatzia.

Zuzeneko musika entzun ahal izanen da gaurko estreinaldian. Javier Asin bera izanen da eszenatokiaren.

¡Sabina! gaur ikusi ahal izanen da lehen aldiz Zizur Nagusiko Kultur Etxean. Baina bihar ere ikusi ahal izango da. Arratsaldeko zortzietan berriro taularatuko dute, leku berean. Sarrerak bertan izanen dira salgai, 500 pezetan, eta 250ean Gazte Txartela edukiz gero. X

Tafallaldea

Gurelur taldeak Orbako kotoaren ixtea eskatu du

■ Bailarako ingurugiroa kaltetu egiten duelako

Erredakzioa / Iruñea

GURELUR talde ekologistak Orbako kotoa ixteko eskatu du berriro ere, «bailarako ingurugiroan eragiten ari den kalteak direla-eta». Ez da hau talde horrek Orbako kotoaren aurkako salaketa egiten duen lehen aldia, eta, gainera, ez da hori egiten duen talde bakarra izan. Beste hainbat talde ekologistak ere bat egin du Gurelur taldearen eskakizunekin, eta kotoaren ixtea eskatu izan dute azken urteetan zehar.

Oraingo honetan, kotoaren ixteko eskatu ezezik, horren egoera ez-legala dela gogoratu dute Gurelur taldeko kideek, erran dutenez, urriaren 17tik ez

baitu Administrazioaren baime-nik. Data horretan kotoaren baimenaren epea bukatu egin zen, eta beraz, «oraingo egoera ez da legala».

Orbako kotoa 1987. urtean jarri zen abian, eta ordutik hainbat talde izan ditu aurka, besteak beste, ehiztariena, jarduera zinegetikoaren oinarriari eutsi nahi baitiote, eta ekologistena, bailarako fauna eta floran eragiten dituen kalteak direla-eta. Gurelur taldearen ustez, beste hainbat kototan egiten dutena egin beharko litzateke Orban ere, hau da, «ingurugiroaren zaintza interes ekonomikoaren gainetik jarri, eta modu egokian kudeatu». X

Iruñea

Sexualitateari buruzko ikastaroa antolatu dute

■ Gazte elkarteek hartu ahal izanen dute parte

Erredakzioa / Iruñea

NAFARROAKO Gazteriaren Kontseiluak gazte elkarteentzako sexualitateari buruzko ikastaroa antolatu du. Gaur eta bihar, eta hilaren 17 eta 25an izanen da. Ostiraletan, arratsaldeko lau eta erdietatik zortzi eta erdietara izanen da, eta larunbatetan, berriz, goizeko hamarretatik arratsaldeko ordu biak arte, eta lauretatik zortziak arte. Abiatze taldeak eskainiko du.

Ikastaro honen helburua giza sexualitateari buruzko hausnarketa bultzatzea da, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluko kideek azaldu dutenez. Horrekin batera, gazte elkarteak beharrezko diren metodologi baliabide eta edukiz

hornitu nahi dituzte, sexu heziketan esku har dezaten. Halaber, osasun promozioaren ikuspegitik prebentzioa sustatzea du ikastaro honen helburua.

Atal hauek guztiak jorratu ahal izateko, Abiatze taldeak azalpen teorikoak eman, eztabaidak bultzatu eta joko eta baskarkako lanak bideratuko ditu. Halaber, talde dinamika landuko da, eta taldeka ere lan praktikoa egin.

Ikastaroan 25 pertsonak hartu ahal izanen dute parte gehienez. Izena eman nahi duenak Nafarroako Gazteriaren Kontseiluko bulegoan egin behar du, Zangoza kaleko 30.ean edo 23 48 19 telefonora deituz. Matrikulak 2.000 pezeta balio du. X

Tutera

Enpresario eta ekintzaileentzat ikastaroa antolatu du CEINEK

■ Datorren ekainaren 12a arte iraungo du

Erredakzioa / Iruñea

CEIN-EK (Nafarroako Enpresa eta Berrikuntza Zentro Europarra), Eder kontsorzioarekin batera, Erriberako enpresario eta ekintzaileentzako ikastaroa antolatu du. Futurem Pegasus proiektuaren barruan, CEINen deialdi honetara 30 proiektu aurkeztu ziren, eta horietako hemezortzi aukeratu dituzte atzo abian jarri zen ikastaroan parte hartzeko. Zerbitzuen alorreko proiektuak dira horietako hamar, sei industriaren alorrekoak eta azken biak komertzioaren alorrekoak.

Ostegunero arratsaldeko hiru eta erdietatik gaueko bederatziak arte izanen da ikastaroa, datorren ekainaren 12ra bitartean. Honen helburua enpresa berriak sortzea da, baita egun daudenak indartzea ere, handituz edo dibertsifikatuz. Horretarako bi atal izanen ditu ikastaroak. Batetik, hezkuntza landuko dute ikasgelan, finantzak, komunikazioa, giza baliabideak eta antzeko beste hainbat atal jorratuz. Bestetik, eta adituen laguntzarekin, ikastaroaren antolatzaileek banan-banan aholkatuko dituzte partehartzaileak. X

Etxauri

Herriko Etxea berritzeko obrak lehiaketarako epea zabaldu du Udalak

■ 35 milioi pezetako aurrekontua onartu dute

Erredakzioa / Iruñea

ETXAURIKO Udalak Herriko Etxea berritzeko obrak lehiaketarako deialdia zabaldu du. Herriko Etxeko barruak bota eta berriro eraiki behar dituzte, eraikinaren egoera tamalgarrria eta larria dela eta. Hori dela eta, hain zuzen, bulegoak Udalaren beste eraikin batean zabaldu behar izan dituzte. Udalak onartu duen aurrekontua 35 milioi pezeta baino gehiagokoa da. Lehiaketan parte hartu nahi duenak deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean atera bezain pronto aurkeztu ahal izanen du bere eskaintza, 26 eguneko epean. Proiektua eta ezarritako baldintzen berri jaso nahi duenak herriko idazkaritzan eskuratu ditzake. Orain, Ramon Basterra kaleko 19. zenbakian daude bulegoak, Bederatzi hilabeteko iraupena izanen dute Herriko Etxea berritzeko obrak. X

Arantzako mendi-mutilak
Frantzian

Arantzako uda hutsak

Urtero bezala, mendi-mutil izandako arantzarrak Errege Egunean bildu ziren Aterpen

Arantzako udak hutsak izan dira urte eta urte askotan zehar. Mutil gazteak Frantziara joaten ziren hango basoetan lan egitera; neskatxa gazteak, berriz, Hendaia edo Donibane-Lohizunera zerbitzari. Mendi-mutil izandakoak urtero biltzen dira Arantzako Errege Egunean. Ehundik gora mutileko taldea bildu ohi da Aterpe erretegioko suaren inguruan.

Eduñe Elizondo / Arantza

ERREGE EGUNA mendi-mutilen eguna da urtero Arantzako. Urtero, Aterpe erretegioko suaren inguruan biltzen da ehundik gorako taldea, mutilek, familiek eta lagunek osatua. Bilkura bera bezala, jatekoa ere urtero errepikatzen da: salda beroa, txuri-beltzak, bakailaoa saltsa berdean, arkume erreka entsaladarekin, mamia, kafea eta kopa. Bazkaldu aurretik, aizkolariak, eta ondok, bertsolariak.

Urteak dira Arantzako mendi-mutilak Errege Egunean biltzen direla. Orain Aterpen, eta lehen Paulonea tabernan. Baina Arantzako mendi-mutilon benetako bilgune, hamarkada askotan zehar, Frantziako mendiak izan dira. Igantzi, Lesaka, Sunbilla, Urrotz eta Donamaria herrietakoak ere lagun izan dituzte basoetan. Frantziakoak ez ezik, Suitza eta Italiakoak ere aski ezagunak dira beraiantzat.

Pantaleon Errandonea arantzarrak 15 urte besterik ez zituela ezagutu zituen baso eta mendietako lanak —lan gogorrak—, iratin lehendabizi, Bizkaian gero eta Frantziako hegoaldean urte gehienetan. 1952. urtean hasi zen lanean, eta 1969ra arte, Berako Cauchos del Bidasso lantegian hasi zen arte, mendi-mutila izan zen.

Pantaleon Errandoneak Frantziako mendiak utzi zituen urte berean, harako bidea hartu zuen Felix Iparragirrek, 19 urterekin. Arantzatik alde egin eta 1972. urtera arte, Errandoneak bezala, hamalka aldiz ibili zituen hango basoak. Eta Errandoneak bezala, lantegi batean lanpostu bat eskaini ziotenean utzi zituen hango

bazterrak. Garai hartan, mendi-mutil askok hartu zuen Felix Iparragirren bidea, eta Arantza inguruan sortzen hasi ziren lantegietan ezarri ziren. Lesakako Laminacionesen horietako asko. Arantzako mendi-mutilak, baina, ez ziren 70eko hamarkadarekin batera desagertu, eta egun badira bakan batzuk oraindik. Horietako bat da Santiago Iturria arantzarra. 1962. urtean hasi zen lanean, 16 urterekin. Gabonak etxean eman ondoren, martxoan hartuko du berriro Frantziako bidea, Perpinya alderako bidea.

Bederatzi hila bete gogor etxetik kanpo • Aterpe erretegiaren inguruan, hango basoetan, arantzarrak ezagunak dira. Kanpoko mendietan dagoen elurra ikusteak bakarrik gehiago epelitzen du baruko giroa. Felix Iparragirrek eta Pantaleon Errandoneak hitz eginez uxatzen dute kanpoko hotza. Luzio Zugarramurdik —erretegiaren jabea eta mendi-mutilen bestaren antolatzailea azken hamahiru urteotan— ez du hitzik galtzen.

Errandonearen hitzetan bidezkoa egiten die Felix Iparragirrek. Bizipen gehienak ezagunak ditu, bizipen komunak dira, finean. Luzio Zugarramurdik, bitartean, Arantzako uda hutsak gogoratzen ditu: «Sasoiko mutilek mendira eta neskatxak Hendaia eta Donibane-Lohizunera zerbitzari, hutsik gelditzen zen herrira».

Beharrak bultzatzen zituen Arantzako mutilek mendira. «Dirua behar genuen etxean, eta orduan hori zen lortzeko modu bakarra». Bat datoz Felix eta Pantaleon. Mendian, gainera, diru ederra irabazteko aukera zegoen.

Pantaleonek Iratin eman zuen lehen urtean, 1952an, eguneko sei duro ordaindu zizkioten. «Martxoaren 7an hasi eta Santa Luzia bezperan bukatu nuen lana, zenbat kobratuko nuen jakin gabe. 8.000 pezeta eman zidaten. Noiz izanen nuen nik, bestela, hainbeste diru eskuetan?».

Dirua izan zen urte askotan zehar Arantzako mendi-mutilek Frantziako basoekin izan zuten lotura bakarra, euren xede bakarra. Beharrak baino ez du azaltzen zergatik pairatzen zuten herriko gazteek halako bizimodu gogorra eta kaskarra. Pantaleon Errandoneak ere gogoan ditu bere aurretik mendi-mutil ibilitako arantzarren kontakizunak: «Aterberik gabe, baso erdian egiten zuten lo, eguraldi ona zein txarra egin». Berak ere ezagutu zituen bizimodu horren hainbat alderdi. Bizkaiko Gorbeta mendian igaro zuen urte txarretako bat, 1954an. «Zaborteja zirudien txabola bat genuen, eta jateko baba egosiak besterik ez genuen, gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko». Frantzian ere, hasierako urteetan behintzat, ez zen asko hobetu bizimodu. «Argitrik argira egiten genuen lan, eta jana ere ez zen ugaria, ogia eta ardoa, babak eta garbantzuak egunerok».

Felix Iparragirre denborak ekarritako hobekuntzen lekuko izan zen. Bere garaian, lekutik lekura eraman zitezkeen etxoletan bizi ziren, eta jana ez zen falta. Lana, baina, ez zen gutxitu. Igandetan ere, arratsaldeko ordu biak arte moztu behar zuten egurra. Lan egiteko, taldeka bakanen ziren mendi-mutilak eta talde bakoitza baso zati batean aritzen zen. Batzuk zuhaitza bota

—arpanarekin eta aizkorekin hasieran, motozerrarekin gero—, lurrean moztu eta pilatu, beste batzuk hartu, bidera bota eta kamioietan kargatu. «Mandoekin eta bizkarrean ere eraman behar izan dut nik», gogoratzen du Pantaleonek Felixek, berriz, treneko bagolak erabiltzen hasi zireneko garaia gogoratzen du. Kamioi eta garabien bidez eramaten zuten egurra geltokira.

Igande arratsaldean zen mendi-mutilek eurentzat zuten tarte bakarra. Arropa garbitu eta euren burua txukuntzeko erabiltzen zituzten igandeko ordu horiek. Ez da harritzekoa, beraz, egondako herrietako —Saint Girons, Montsegur, Ascou, Foix, Tarascon-sur-Ariege...— biztanleekin inolako harremanik ez izatea: «Ez ginen sekula menditik zituena bizimodu horren hainbat alderdi. Bizkaiko Gorbeta mendian igaro zuen urte txarretako bat, 1954an. «Zaborteja zirudien txabola bat genuen, eta jateko baba egosiak besterik ez genuen, gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko». Frantzian ere, hasierako urteetan behintzat, ez zen asko hobetu bizimodu. «Argitrik argira egiten genuen lan, eta jana ere ez zen ugaria, ogia eta ardoa, babak eta garbantzuak egunerok».

Astelehenetik igandera egiten zuten lan medik, eta apeza bisitan etortzen zenean baino ez ziren herrira jaisten. Etbizi ziren guztiak, taldetan.



Arantza hutsik gelditzen zen udan. Hainbat mendi-mutil ateratzen ziren batera herritik Frantziako mendi eta basoetara. Orain, bertan du bere bizitza.

Arantzako mendi-mutilak
Frantzian

Arantzako mendi-mutilek pozik hartzen zuten udan Esteban Irigoienek bisita.

Esteban Irigoien: «Negarrez ikusi izan ditut mutilak etxekoan berri jasotzean»

■ Arantzako apeza izandakoak askotan bisitatu zituen Frantziako basoetan

Eduñe Elizondo / Iruñea

ESTEBAN IRIGOIEN 1962. urtean allelatu zuen Arantzara, apez, Iruñean aurkitu dugu guk eta bertan eman digu Arantzako mendi-mutilei buruz dituen oroitzapenen berri. Izan ere, udan, Arantza hutsetik ihes egiten zuten mendialderantz, Frantziako apezaren etxean zegoen emiorara hurbiltzen zirenak, bertan bizi izandakoaren berri emateko. Orhik aldetik atera eta Alpe Garaietaraino, eta bidean, 400 mendi-mutil euskaldun aurkitu. Bidaia haiek, gertutik ezagutu ahal izan zuten arantzarren eta gainontzeko mendi-mutilen bizitza.

«Arantza, Goizueta, Lesaka, Baztan eta beste hainbat herrietako mendi-mutilak aurkitzen

nituen, eta talde bakoitzarekin, pare bat egun ematen nituen. Denekin gelditu, egun batean elkartu, eta meza ospatu eta bazkaria egiten genuen», gogoratzen du Esteban Irigoienek. Lauehun lagun ere elkartu izan ziren bazkari haiek batzuetan.

Esteban Irigoienek bidaiak alderdi on eta txarrak, gaziak eta gozoak zituzten. Bederatzi hila bete etxetik kanpo ematen zituzten arantzarrak —herriko bestetan bakarrik zuten opor-pozgarria zen oso herriko apeza Frantziako basoetan ikustea.

Etxekoan berriaren emate ere baten. «Arantzako irratik txikia genuen, eta nik mendi-mutilen gurasoen, anai-arreben, andreen, andregalen ahotsak grabatzen nituen, mutilek entzun zituzten. Negarrez ikusi izan ditut horietako asko».

Frantziatik bueltan, berriz, mendi-mutilek ziren Arantzako apezaren etxean zegoen emiorara hurbiltzen zirenak, bertan bizi izandakoaren berri emateko. Irratira solastera joan ez ezik, baten etxera itzuli bezain pronto Frantzian egondako mutilek egi-

ten zuten gauza bat, Esteban Irigoien asko ukitzen zuena: «Dendan sartu eta amak zenbat zor zuten galdetzen zuten, eta instantean ordaindu».

Azken hamahiru urteetan Aterpe erretegiaren egin den mendi-mutilen bestak, halaber, Esteban Irigoien du aitzindari. Bera izan zen, Frantzian ez ezik, Nafarroa itzultakoan ere mendi-mutilak biltzen ahalegindu zena, «elkarren berri izan zezaten».

Mendi-mutilen bizitza gogorra ere gertutik ezagutu ahal izan zuen Esteban Irigoienek bere bidaietan. «Hura ez zen bizitza, argitrik argira lanean, eta halako baldintzetan». Izan ere, hasierako urteetan batez ere, Frantziara lanera joandako gazte askok pasaportetik eta aseguratik ere ez zuten izaten. «Ni joaten nintzeanean, horren guztiaren berri ematen zidaten mutilek, kezu ziren, baina, aldi berean, nagusiaren aurrean protesta eginez gero dirua galtzeko beldur ziren».

Paper fabriketako nagusiak, hain zuzen, nafarrak izaten ziren askotan, Frantziara joandakoak. Horregatik jotzen zuten Arantza eta beste herrietara langile bila. Horietako askok Esteban Irigoienek protestak entzun behar izan zituzten, hemezortzi orduz lan egiten zuten berri herriko mutilen alde egiten baitzuten. «Baina, oro har, ongi portatzen ziren. Arantzako mutilek ere mutil langile eta jatorrak ziren. Negarrez ikusi izan ditut nagusiak Arantzako etxera itzultzen zirenean».

Ezbeharraren lekuko ere askotan izan da Esteban Irigoien Frantziako basoetan, mendi-mutil guztiak bezala. «Behin, soldadutzatik zetorren gazte bat hil egin zen. Ez zuten pasaportetik, ez aseguratik. Muga gauze pasatu zuen eta lanean hasi zen egun berean, Saint Gironsen, zuhaitza gainera erori zitzaion eta hil egin zen». Hasierako urteetan, gainera, ez zegoen medikurik mendi-mutilen artean eta eurek eraman behar izaten zituzten zaurituak kamioiez eritezera. Pantaleonek eta Felixek ederki gogoratzen dute hori, lagunak ondoan hiltzen ikusi izan dituztelako eurek ere. X

Esteban Irigoien: «4.000 kilometro egin izan ditut hamabost egunetan, Orhik Alpe Garaietaraino, eta bidean 400 mendi-mutil euskaldun aurkitu»

Xanti Begiristain

Ama bidegabea

■ Bazen behin urrutiko herri batean emakume bat bere familiarekin bizi zena. Egun haietan, gurasoez eta alabaz gain, beraiekin alabaren lehengusina bat ere ari zen bertan bolada bat pasatzen. Uda bete-betea ziren.

Baina biziaren gora-behera batzuegatik (orain ez dut azalduko arrazoia), sendi horretan bazuten alabarde bat. Hauxe zen zaharrena. Lehengusina bigarrena adin kontuetan, eta etxeko gurasoen odol beroko alaba, jakina, gazteena.

Egun eguzkitsu batean amak honako hauxe esan zien hiru neskatilari etxetik ateratzean goizerdian:

—Eta gogora ezazue, errekarra jostatzera joaten bazarete kontuz ibili arropa busti eta zikindu gabe!

Julian Irizar Armadarekin ez kolaboratzeagatik, Espainiako Armadari, alegia, inolako laguntzarik ez emateagatik soldadutza egiteko adinean zeuden gazteen zerrenda igortzeari uko eginez.

Jakina denez, hasiera batean fiskalak urtebeteko inhabilitazioa eskatu zuen kargu publikoetan aritu ahal izateko, eta gainera, 200.000 pezetako isuna.

Azkenean, epaiak ezarri dio hilabete baterako inhabilitazioa eta 100.000 pezetako isuna.

Nik, beste jende askok eta askok bezalaxe, uste dut ekintza hori, Jose Julian Irizarrek egin duena, alegia, ez dela delitua, eta beraz, ez duela inolako epaiketarik eta zigorrik behar.

Baina denok dakigu Irizar jauna ez dela izan



Baina jakina da. Aski izan zuten neskatok ohartarazpen hura entzutea errekarako putzuetan gusturago aritzeko jolasean.

Etxera itzuli zirenean, ama berehalaxe konturatu zen hirurak zeudela goitik beheraino bustirik eta zikinduta. Argi dago ez ziotela baxterez jaramonik egin amaren aholkuari.

Ama ziztu bizian haserretu zen eta horrelaxe esan zien aldarte txarrez:

—Begira, zu zaharrena izateagatik bi astez geltiduko zara postrerik gabe! Zu berriz, iloba zarelako bi egunetan utziko zaitut azkenburukorik barik. Eta zuri aldiz, alabatxo maitea, txikiena izateagatik, ez dizut batere zigorrik jarriko hitz ematen badidazu ez duzula berriro ere okerrik egingo, konforme?

Nabarmena da ama horrek ez zituela neskatza guztiak berdinduta maite eta epaitu.

Beno, ba, honi guztiari antz ikaragarri handia ateratzen diot beste epaiketara maila batean gertatzen ari denarekin.

Begira ezazu, duela gutxi epaitu dute Jose

ez lehena ezta azkena ere. Beste alkate asko dago eta izan da egoera berean. Orainxe bertan gogoratzen ditut, besteak beste, Bargotako alkatea, Etxarri-Aranazkoa, Lesakakoa eta abar.

Baina aldeak eta ezberdintasunak hemen heldu zaizkigu hain zuzen ere. Bargotako alkate ohia, Pablo Llorens jauna, egitate berdinarengatik inhabilitatu zuten bi aldiz seinatu urterako eta 100.000 pezetako isuna jarri zioten. Manuel Campos Etxarri-Aranazko alkate izandakoari sei urteko inhabilitazio zigorra jarri zioten 1993an, eta Zigor Kode berriarekin urte batean utzi diote.

Oroimenak ez badit iruzurrik egiten, uste dut Lesakako alkateari ez ziotela inongo-zigorrik jarri.

Bukatzeke, berriz esango dut: antimilitarismoaren alde jokatzeko ez da delitua nire iritziz, baina hori bai, zigorrak jartzekotan denei berdinduta jarri behar litzazkieke, bestela nik usain txarra hartzen diot, eta ama bidegabearen jokamoldea gogorarazten dit. ■

Klasiko bitxi, arront klasiko

Joxemiel Bidador

Otxoluaren euskal lanak II.

■ Otxoluaren euskal lanei buruz erran behar da, bere idazlanik ezagunena Bertoldaren maltzurkeri zurrak eta Bertoldinen txaldankeri barregarriak dugula, lehendabizi Euzkadi aldizkarian, eta geroxeago Bilbon, Verdes Atxirika'tar Emeteriren irarkolan, 1932.ean. Berrikiago ere Labayrukoen eskutik eta Adolfo Arejita apallaturik agertu da, Bilbon, 1983.ean. Giulio Cesare Della Croceren (Bologna, 1550-1620) jatorrizkoen itzulpena da honakoa, izan ere bi izan zirelako egilea hil ostean karrikaratu liburuak: *Bertoldo eta Bertoldino eta L'eccellenza e trionfo del porco*. Ezaguna ere bada Adriano Banchierik ondu jarraipena, Casasenoren istorioa alegia, baina Garrok etzuen euskaratu, ganorabako gehigarri undatsa zelako uste osoan. Bizkaieradun elder eta atsanki zaigu Otxolua, baina garaiko idazbideei eskerrak, itzulpena arras zaila dugu, garbikeriz josirik, nahiz bukaeran hiztegitxo bat zekarren. Liburu honen aukeratzeko arrazoiak ere eman zituen: «*Ba dira basterretan au baño idazti ederragorik asko nok euskeraldukoren begira, baiña nik idaztiño au begiz jo badot, erderaz dauan zabaltasunaren bidez euskerarentzako onura apur bat ateratiarren baño ezta ixan*». Oraino ere bestelako lan abondo zaigu geratzen aipatzeke, berbarako, Barbierren ipuien bizkaierapena, nahiz ingelertatik batez ere hartutako alegi eta animalien gaineko hainbat kontu: *Abere ipuñiak, kontu kontari esanak, Abere dontsuak, Euskal Herriko abere ta piztiak edota Pizti patariak*.

Olerkari bezala ere zer edo zer burutu zuen, bere baitatik aterea edo ingelera nahiz portugasetik itzulirik: «*Erromerita joan / Ainbat neska ikusi / Baña batek biotzean / Ein deust niri kili kili / Ta geiago eziñean / Esan deusat ari / Loretxu gazte polita / Jai-li-li, jai-li-li, jai-lu / Zu beingo batean ikusita / Katez nozu lotu / Il edo bizi naitean / Erantzun egidazu / Beste inor maite ete dozun / Jai-li-li, jai-li-li, jai-lu / Ala eiten badotsut mandatu / Jai-li-li, jai-li-li, jai-lu / Ene zalduntxo gaztea / Jai-li-li, jai-li-li, jai-lu / Arin arin erantzutea / Ez dot pentsamentu / Oingo mutilok zarie / Aizea bezalatsu / Amagaz pentsetan itxidazu / Jai-li-li, jai-li-li, jai-lu / Eta zintzo irauten ba dozu / Jai-li-li, jai-li-li, jai-lu*». Halaber kanta letra ugari ondu zituen, txistu, kitarra zein piano jolea zen eta: «*Kabeliña, kabeliña / Kabeliña biotzkoa / Nire maitetxuagana / nire maitegana oa*». Berak zioen: «*Gisa ontako gauzak asko burutu ditut, baiña irteerarik ez dute izan zelan-alangoa baizik. Kitarra artu eta erriz erri bertso auek kantari joan eta bertso berriak bezela saldu al bagenituzke, bear bada onartua izango lukete; baiña ez gagoz Iparragirrerena egiteko*».

Honezkero Euskaltzaindiaren gerizpean toponimia kontuek kezkatu zuten Mundakakoa. 1956.eko Euskara aldizkarian *Nombres genéricos de río en la toponimia vasca: aportaciones para un estudio acerca de los de Bizcaya* izenburukoa agertarazi zuen, ibai-ibaso-bidaso, urandi-urhandi, uraitz-uaitz-ugaitz-uhaitz, ualde-uhalde-ugalde-ubalde-ugelde, uar-uharra-uarre-uharre, lats-latsa-latsbegi, erreka, aldaerak ikusgai, baita berak ere proposaturikoak, zea-zen-zeni-zene, oka, oza-otza-otxa-oxa-oja, urdola, urzabal, ugatxa, ego... Zetorren urtean Herriaren Lagunen Aldizkarian *Ensayo sobre la propiedad comunal en la toponimia vasca* agertu zuen, aurtentxe leku izena iruzkingai. ■

Herriaren eta hizkuntzaren diskoa

EHEk kaleratu berri duen lanean parte hartzen duten talde guztiek kontzertuak eskainiko dituzte

Euskal Herrian Euskaraz-ek (EHE), Euskal Herriak izan behar du euskaldun eta librea kanpainaren barruan, izen bereko diskoa kaleratu zuen Durangoko Azokarako. Aurki aurkezpena egingen dute Donostian, baita Iruñean ere. Hamahiru talde eta bakarlari lanak biltzen dira bertan, tartean Bittor Aiape eta Balerdi Balerdi nafarrenak. Diskoa plazaratu ondoren, kontzertuak egingen dituzte datozen hilabeteetan Euskal Herri osoan.

Edurne Elizondo / Iruñea

EUSKAL HERRIAK izan behar du euskaldun eta librea kanpainaren barruan, izen bereko diskoa kaleratu zuen Euskal Herrian Euskaraz taldeak (EHE) azaro aldean, horretarako sortu Euskaraz bizi zigiluaren eskutik. Bertan, hamahiru musika talde eta bakarlari bildu dituzte, euskararen aldeko taldearen kanpaina berriari kantuz bultzada emateko. Eta hilabete hauetan, behintzat, diskoak berak jaso duen bultzada ez da nolana hikoia izan, salmenta eta kritika aldetik emaitza hagitz onak lortu dituztela azpimarratu baitute Euskal Herrian Euskaraz taldeko kideek.

Diskoa kaleratzeko ideia Euskal Herriak izan behar du euskaldun eta librea kanpaina presatzen hasi zirenean sortu zen. «Pentsatu genuen abertzale sentitzen direnak motibatzeko beharrezkoa zela. Jende horrengana iristek, uste dugu garrantzitsua dela artista eta musikarien laguntza lortzea», azaldu digu Iñaki Fernandez EHEko kideak.

Diskoa osatzeko lehen urratsa orain urtebete eman zuten. Bertan agertuko ziren kantariak eta taldeak aukeratzea izan zen lehenengo lana. Eta Euskal Herrian Euskarazeko kideek onartu dutenez, «ez daude bertan bertan nahi genituen guztiak, baina nolabaiteko hautaketa egin beharra zegoen».


Bi irizpide izan dira nagusi lan hori egiteko orduan: herrialde guztietako ordezkariek lortzea, alde batetik, eta orotariko musika doinuak sartzea diskoan, bestaldekik.

EHEko kideek, beraz, Euskal Herriko talde eta bakarlari ezagunekin zerrenda egin, eta euren proiektuaren berri eman zieten. Eskaera zehatza egin zieten: «Euren kantuetan herriaren eta hizkuntzaren arteko lotura azaltzea nahi genuen, eurek ikusten zuten bezala».

Kantarien erantzuna, Iñaki Fernandezek aburuz, ezin hobea izan da: «Inork ez digu ezetz erran». Ondorioz, hamahiru kantak osatutako diskoa plazaratu du Euskal Herrian Euskarazek.



Balerdi Balerdi -ezkerrean- eta Bittor Aiape -behean- musikari nafarrek ere parte hartu dute diskoan. ARTXIBOKOA



Musikariak lanean musutruk

Musikarien baitza jaso bezain pronto, lanean hasi ziren EHEko kideak. Musikariek eurek hautatu lekuan grabatu zituzten euren abestiak, diskorako propio eginak guztiak -abesti ezagunen bertsioak dira batzuk-, Mikel Laboaren *Herria eta hizkuntza* izan ezik. «Laboaren kantak gure asmoarekin lotura zuzena zuen, eta uste genuen iraganarekin lotura ere bazuela. Horregatik sartu dugu».

Musikariek ez dute sosik ikusi euren lanagatik, musutruk egin dute, eta Euskal Herrian Euskaraz-ek hartu ditu bere gain grabatzeko kostuak. Diskoa plazaratzeko Euskaraz bizi izeneko zigilua sortu du. Hori dela eta, diskoarekin lortutako irabaziak taldearentzat izan dira, «ez baitugu inolako laguntzarik jaso».

Euskal Herriak izan behar du euskaldun eta librea diskoa Durangoko Azokarako kaleratu

Erakusketa ibiltaria Iruñean

EUSKAL HERRIAK izan behar du euskaldun eta librea izenpean kanpaina eta diskoa ezezik, erakusketa ere antolatu eta plazaratu dute Euskal Herrian Euskaraz taldeko kideek. Euskal Herri euskaldun eta librea artelanen bidez ere aldarrikatzeko asmoz. Horretarako, hainbat artistari laguntza eskatu, eta lortu ondoren, erakusketa ibiltaria eratu dute. Diskoan bezala, Euskal Herriko herrialdeetako artistak bildu dira erakusketa honetan ere, eta euren lanak herrialde ezberdinetan erakutsiko dituzte.

Lehenengoa, hain zuzen, Nafarroa izanen da. Gure herrialdeko hiriburuan datorren astelehenean zabalduko da Euskal Herrian Euskaraz taldeak antolatu erakusketa, Txantrea auzoko Auzotegi elkartearen, alegia. Hil honen

bukaerara arte egonen da, astelehene ostiralera, arratsaldeko zortzietatik gaueko hamarretara bitartean.

Mota eta estilo ezberdinetako artistak bilduko dira aipatu erakusketan. Bertan izanen dira, adibidez, Tomas Astid Montero eta Miriam Zaragueta iruindarrak, baita Apezetxea margolari erratzuarra ere. Gasteizko Roberto Gonzalez de la Fuente eta Agurtzane Villate eta Iñaki Varonaren lanak ikusi ahal izanen dira, baita Amurrioko Miren Murga Alkortarenak, Basauriko Andonirenak, Bilboko Alatz Lopez, Miel Vivanco eta Nerea Rivasenak ere. Anton Mendizabal Kristobal donostiarrak ere hartuko du parte erakusketa ibiltari honetan, baita Zigor Ramonek, Julio Pardok, Idoia Larrañaga Fachadok eta Ainara Lasak ere.

zuen EHEk, eta bertan 800 ale saldu zituzten. Emaitzak, Iñaki Fernandezek aipatu digunez, oso onak izan dira oraingoz, bai salmenta aldetik bai kritika aldetik. Exkiyu taldeak Benito Lertxundiren *Loretzxa* kantaz eginiko bertsioa, adibidez, lehenengoa izan da Euskadi Gaztearen zerrendan.

Exkixuren abestiarekin batera, Benito Lertxundiren *Nigarra begian*, Mikel Laboaren *Herria eta hizkuntza*, Guk taldearen *Euskal Herrian Euskaraz*, Txomin eta Urbil Artolaren *Aberriaren mugak*, Anje Duhalderen *Etxeko andre*, Gariren *Hau espektakulua*, Txakunen *Maiatzaren iguzkia*, Deabruak Teilatuetan taldearen *Hau da ene ondasun guztia*, Balerdi Balerdiaren *Toki-lekun*, Negu Gorriak taldearen *Hipokrestari stop!*, Bizkar Hezuraren *Esnatu* eta Bittor Aiaperen *Euskal Herria eraikiz* abestiek osatzen dute EHEren diskoa.

Diskoa azaroen argitaratu bazen ere, aurkezpen ofiziala hil honen 14an egingen dute Donostian. Musikariek eta kazetariak egingen dute Arrano Beltza euskaltokian. Iruñean ere aurkeztuko dute aurki, Gipuzkoara joaterik izanen ez duten Nafarroako euskal komunikabideentzat eta nahi duten guztientzat.

Kontzertuan entzuteko aukera ere izanen da datozen hilabeteetan. Erratzu, Donibane-Garazi, Lekeitio, Gasteiz eta Bergaran izanen dira emanaldiak, eta Euskal Herrian Euskarazek kaleratu duen diskoan aritu diren musikariek hartuko dute parte.

Kontzertuak otsail edo martxo aldera izanen direla aurreratu badute ere, EHEko kideek ez dute orandik argitu zehazki non eta noiz izanen diren, ezta bakoitzean zein kantari edo talde ariko den ere. X

* ◆ Yolanda Mazkieran ◆ Zinemagilea

«Zinema independentea da itxaropena»

Yolanda Mazkieran altsasuarrak Nafarroako Bideo Jaialdiko nafar lanik onenaren saria irabazi zuen egindako azken ekitaldian. Londresko behartsuei buruz egindako dokumentalarekin eskuratu du saria. Orain, eromenari buruzko lana du esku artean.

Eduñe Elizondo / Altsasu

ALTSASUN hartu gaitu Yolanda Mazkieran 33 urteko gazteak, bere etxeko egongelan. Londresen hiru urte egon ondoren, Nafarroan da berriro. Bere ustez, dena den, zinemaren munduan lan egiteko aukera gehiago dago hemendik kanpo.

■ **Homeless in London lanarekin irabazi duzu nafar lanik onenaren saria. Nolako lana da?**

Mamiari dagokionez, behartsu batzuen bizitza edo euren bizitzaren ikuspuntua da, euren esperientzia, euren gogoeta duten bizitza buruz. Elkarrizketak egin ditut batez ere, zentro batean eta baita kalean ere. Horien bidez ikusten da nolako den behartsu horien bizitza. Pertsonaia desberdinak agertzen dira, baita gai desberdinak ere, hala nola, alkohola, ironia, gerra,...

■ **Lan hau Nafarroan erakutsi eta saria lortu ondoren pozik egon zara.**

Niretzat oso bultzada garrantzitsua da. Mundu honetan aspalditik nago ni, independente gisa, eta hemendik kanpo irabazi ditut hainbat sari ere. Baina hemen inor ez da enteratu. Orain, enteratzen hasi dira.

■ **Independente zarela aipatu duzu. Hori al da aukeratu duzun bidea, gustuko duzuna?**

Bai. Oraingoan, behintzat, nahiago dut horrela lan egin. Egin izan dut lan jende ospetsuarekin, diru asko zuen jendearekin, baita diru gutxi zuenarekin ere, baina nahiago dut nire bidetik jarraitu.



Eromenari buruzko dokumentala da Yolanda Mazkieranek orain esku artean duen lana.

JOXE LACALLE

■ **Ez al da zaila hemen independente izatea?**

Oro har, zinemaren lan egitea oso zaila da, konpetentzia handia dagoelako. Niretzat Londresen lan egitea hemen lan egitea baino errazagoa izan da, han exotikoa gona nintzelako agian. Baina azpimarratu behar da zinema independentea hemen oso arraroa bada ere, Europako gainontzeko herrietan eta Amerikan oso garatua dagoela, mugimendu handia dago zine independentearen inguruan eta gauza asko egiten dira. Nire ustez, etorkizuna hor dago, zinema independentean. Gauza ezberdinak egiten dira, istorioak beste era batera kontatzen dira. Itxaropenik baldin badago, zinema independentean dago.

■ **Beraz, aukera hemendik kanpo joatea da?**

Hemen ez dago ezer. Madril ere, oso zaila izan da. Laburmetraietan hasi nintzen lan egiten, adiskideekin, ordaindu gabe, baina horretan ere ez dago etorkizun garbirik. Dena den, badaude beste bideak ere, dokumentalena adibidez.

■ **Hori al da aukeratu duzuna?**

Oraingoan bai, oso gustora nago dokumentalak egiten. Abantailak ere baditu, gainera. Izan ere, dokumentalena bide berriagoa da eta ez dago hain erabilia. Gaur egun, Europan adibidez, oso gauza garrantzitsuak egiten ari dira dokumentalen arloan. Jaialdi asko dago eta gauza berri eta modernoak egiten ari dira.

■ **Eta fikzioa lantzeko gogoak ez duzu inoiz izan?**

Fikzioa asko gustatzen zait eta gustatuko litzaidake istorio fantastiko bat egitea. Baina, alde batetik, fikzioa egiteko diru asko be-

har da, eta, bestetik, uste dut errealitatea hor dagoela eta eguneroko gertatzen direla gauza asko, eta oso gogorak. Dokumentalak egitea, gainera, neurri batean erraza da, kamera simple bat eta gai bat besterik ez duzu behar.

■ **Bideoa, beraz, sistema egokia iruditzen zaizu?**

Ezin dugu ahaztu zinema askoz garestiagoa dela. Hala ere, gaur egun bideoarekin oso kalitate handia lor daiteke, aurrerapen handia egin da, eta batzuetan ez dago ezberdintasun handirik. Noski, zinema profesionalagoa da. Hala ere, aipatu beharra dago hemen ez dagoela dokumentalak egiteko ohiturarik; baina Amsterdamen, adibidez, oso garrantzitsua da eta bertan erakutsitako dokumentalak zinemaren egindakoak dira askotan.

■ **Orain arte laburmetraien eta erdimetraien munduan ibili zara. Luzemetraiak noizko?**

Oso zaila da eta oraindik ez dut nire burua luzemetraiak egiten

s o s l a i a

Zinema munduan murgildu aurretik, filosofia ikasten hasi zen Yolanda Mazkieran, eta, Zorroagan zegoela, Sebastopoleko Titiriteroak sortu zituen hainbat lagunekin. Filosofia hirugarren mailan utzi zuen, baita antzerkita ere, eta Londresera joan zen 1990. urtean.

Bertan, kameraren inguruko hainbat ikastaro egin zituen. Bideo musikaletan egin zuen lan, baita BBCn ere, sei hilabetez, editala lanak egiten, hain zuzen ere. Londrestik 1993. urtean itzuli zen, eta hemen hasi zen lanean, besteak beste, Jose Antonio Vitoria, Txepe Lara eta Helena Tabernarekin.

Bere lan iturriak, baina, hemendik kanpo bilatzen jarraitu du. Amsterdamen, adibidez, urtebete egon zen dokumentalari buruzko masterra egiten Europan Eskolen Batasunean. Bere lanen artean, La espera eta Crisis aipa daitezke, bere aitzpekin egindakoak.

ikusten. Ongi nago nagoen bezala oraingoan. Laburmetraiak egiten jende asko dago baina oso gutxi ailegatzen dira luzemetraien mundura, bidean jende asko gelditzen da. Diru asko behar izateaz gain, luzemetraia bat egiteko oso ziur egon behar duzu.

■ **Ba al duzu proiektu berririk esku artean?**

Eromenari buruzko dokumentala prestatzen ari naiz orain. Behartsuena bezala, betidanik interesatu izan zaidan gaia da hau. Arrasateko eta Iruñeko zoroetxeetan dauden hainbat lagunekin hitz egin dut, tartean Luis Maria Panero idazlearekin edo Manolo Kabezabolorekin. Eromena zer den, eroak nortzuk diren, zer den eskizofrenia, zer paranoia... halakoak agertu nahi ditut. Kritika soziala da, baita kapitalismoari egindako kritika ere. Leopoldo Maria-Panerori dagokionez, uda osoa eman dut berekin, eta asko markatu nau, asko irakatsi dit. x

«Dokumentalena bide berriagoa da, eta ez dago hain erabilia. Europan gauza berri eta moderno asko egiten ari dira»

P A N E LUCRÁNDO

ZALDI EROA

Lirikaz
Honatago
•Replay•

GAUR:
Jabe goa

Ryokan

Gauzez itzuli zen poeta etxaldera

Atea zabaldu orduko lapur batek etxea zeharo ustu ziola konturatu zen

eta idatzi zuen...

¡IK!

Lapurari lehoan ilargia ahaztu zaió